

“ ”

Iparraldeko gazteen artean bada halako galde bat bertsoetan hasteko

Beñat Larrory (Iruri, Zuberoa, 1990) eta Xermin Camblong (Luhuso, Lapurdi, 1997) lehen aldiz ari dira bakarkako Xilaba bertso txapelketan. Ahots ezagunak dira haatik Ipar Euskal Herrian, euskal irratietan egiten baitute lan. Ez bata ez bestea ez zen umetan bertso eskolan ibili; gerora bertsozaletu ziren, eta bertsolari izateko gozoz daude.

 **MADDI SARASUA LASKARAI**  **JOANES ETXEBARRIA**

Nolako harremana ukan duzue bertsoarekin?

Beñat Larrory: Lehen harremana *Lazkao Txiki* marrazki biziduna izan zen, euskal telebistan, *Dragoi Bola Z*-tik landa baitzen. Markatzen ninduen, baina ez nintzen ohartzen Zuberoan ere bertsoa bazela. Pastoralzale gara, baina ez gara ohartzen kobla dela. Eta gero, egin genuen aspaldi maskarada Barkoxen (Zuberoa) Joanes Etxebarriarekin. Hura ari zen jadanik koblaka, uste dut

Xilabako finalera heldu zela urte hartan. Maskarada finitzean aritzen ginen koblaka, hasi nintzen amiñi bat horrela, justu arrapostu emateko. Eta gero utzi nuen. Beti enbeia nuen, baina ez nuen atzematen jenderik enekin hasteko, eta ez nuen sentitzen hastea Joanes Etxebarriarekin-eta. Jadanik bazuten maila bat, enetako sobera urrun zena.

Lehenik, entseatu nintzen abiatzen jende zenbaitekin, hamar bat pertsona bildu nituen kobla eskola baten egiteko.

Birritan edo hirutan bildu ginen, baina gero ez zuen atxiki. Covid-a baino pixka bat lehenago Dilan Inglis ingelesa jin zen Zuberoara, eta usu harekin aritzen nintzen koblaka. Arreraiki genuen talde bat, eta sei hilabetez bildu ginen, baina bera [Inglis] joan zelarik ez zen gehiago nehor jiten. Ondotik, digitalki egin genuen kasik urte batez, Leire Casamajou, Dilan [Inglis] eta hiruek. Dilanek jada bazuen talde bat interneten, eskualde orotako koblakariak biltzen zirenak, bazen bat AEBetan, Todor; Dilan Eskozian edo Georgian zen; eta besteak Euskal Herrian. Gero, taldekako Xilaban parte hartu nuen, eta horrela sartu nintzen oraingo bertso eskolan, Xan Alkat, Joanes Etxebarria eta Johaño Sarrailetekin.

Xermin Camblong: Ni berant hasi nintzen, nahiz eta bertsoarekin lehen kontaktak ikastolan ukan genituen, baina garai hartan ez nuen interes handirik. Covid-a baino lehenagoko Kaskarotetan hasi nintzen Ainhoa Sarasuarekin koplatan, eta biziki maitatu nuen hastapenetik. Beti lotu izan dut bertsoa ihauteri



Ezker-eskuin: Beñat Larrory eta Xermin Camblong, ARGIArako elkarrizketan, Maule-Lextarren.

garaiarekin eta ihauteriko gauza desberdinekin, Libertimendua, Kaskarotak eta Santibate, batez ere azken bi horietan ari izan naizelako bertsolari bezala. Eta covid garaian nik ere ukan nuen bertso eskola digitalki, uste dut Ortzi Muruarekin zela. Konfinamenduan bagenuenez denbora, gehiago aritzen ginen.

Larrory: Beharrik ukan genuela covid hori.

Camblong: Bai. Gainera, etxean sarturik egiten genuen bertsotan asteen bi edo hiru aldiz, anitz. Oroitzapen onak ditut. Baina covid-a eta gero beste lehentasun batzuek hartu zuten gaina, eta beti ihauteri inguruan berraktibatzen nintzen.

Nola hartu zenuten bakarkako txapelketan parte hartzeko erabakia?

Larrory: Taldekakoa egin nuen pentsatuz ondotik enbeia nuela bakarkako Xilaban parte hartzeko. Hura izigarriko ontsa da hasteko, ariketa bat edo bi baizik ez baitituzu, goxo da. Jada baduzu presio handia, jendearen aitzinean zara, eta bertsolari onekin ari zara; ni Haira

Aizpuruarekin eta Irantzu Idoaterekin aritu nintzen, bertsolari zinez onak.

Zer maite duzue bertsolaritzan?

Camblong: Ene ustez bat-bateko horrek erakartzen ninduen, zirikan, batak besteari erantzuteak. Hastapenean biziki kopla eta zortziko ttipi zalea izan naiz. Hori entzutea gustatzen zitzaidan, bertsolari onetan ere, gaitasun hori, puntu gutitan bata bestearekin aritzekoa. Lehen iruditzen zitzaidan biziki zaila zela bertsotan gauzak sakontzea eta arrazoinatzea, eta egia da; orain, Xilabarako trebatzen hasi naizenetik, ikusten dudala teknika bat baduzularik, gauza gehiago erraten ahal dituzula. Ez da ene kasua oraino, baina ohartzen naiz ematen ahal dizula gaitasun hori.

Larrory: Nik magikoa atzematen nuen. Orain truko zenbait ezagutzen ditut [barre egin du], baina magikoa atzematen nuen, nola erraten ahal den zentzuzko zerbait, barna den zerbait, eta filosofia egitea edo arraileria egitea kantatuz eta errimatuz ber denboran.

Hainbeste parametro behar dituzte uz-tartu, atzematen nuen espantagarri! Pentsatzen nuen: "Nik nahi diat ber gauza egin, nahiz eta ezinezkoa den non-bait enetako, baina entseatuko diat". Eta euskara lantzeko ere bai, atzematen dut ekartzen duela euskararen lantze bat. Jada entseatzen naiz egunero hiztegia zabaltzen, eta euskararen hobetzen egunerokorako.

Camblong: Egia da, enetzat ere euskara erabiltzeko beste manera bat da. Guk lanean erabiltzen dugu, artikulatu batzuk idazteko eta beste gauza batzuetarako, baina bertsoa da beste manera batez aritzeko, manera poetikoago bat, zentzu batean.

Irrati esatariak zarete biak: Beñat, Xiberoko Botzan; eta Xermin, Irulegiko Irratian. Irratilaritzan ere bada inprobisazioa, bada hizkuntza, ahozko komunikazioa...

Camblong: Nik hori dut gehien maite irratian. Momentu hori; adrenalina, bat-batekoa.



Zu kantaria ere bazara, Beñat.

Larrory: Betitik kantatzen dut, etxean horrela erakatsia izan zait. Eta egia da bertsoak ere hori ekartzen duela. Irratia ere erraten duzu inprobisazioa dela, baina inprobisazioa anitz landua da; inprobisatzen ahal duzu baina amiñi bat landua bada lehenagotik. Ez duzu zernahi inprobisatzen ahal horrela. Nik beti erraten dut, inprobisazioa dela beharbada landuen den gauza bat, arte bat. Nik egin izan ditudan karguetan, Maskaradetan-edo, baldin bada inprobisazioa, aitzinetik pentsatzen nuen: “Zer erraten ahalko nuke sekulan hori agitzen bazait, edo egoera horretan banaiz, zer arrapostu ematen ahalko dut?”. Ez naiz sekula heldu plaza batetara horrela, ideiarik deus ere gabe. Zenbaitek badukete gano hori, baina nik ez dut sobera sinesten horretan. Gehiago sinesten dut lantzeari: iruditzen zait lanak duela ekartzen bertsolari ona.

Eta nola landu duzue justuki, Xilabarako?

Camblong: Etorri den bezala. Bertso eskoletara asteen behin, baina aski desakibatua ginen Baigorri. Entzutetik anitz, erranen nuke. Egia da bertsoa hastearekin batera zaletu nintzela baita ere, eta atzeman nituela bertsolari batzuk biziki onak eta gustua hartu nion haiek entzuteari. Hortik ere hasten zara kopiatzen, errimak, estiloa... Entseatzen zara bederen.

ren. Eta arituz. Numerikoki pixka bat, eta ahal zen pertsona gehienekin bildu. Zentzu horretan prestakuntza biziki ongi pasa dut, jende desberdinarekin kantatu ahal izan baitut.

Larrory: Nik ere bai. Ez naiz prest sentitzen oraino. Esperantza dut azken egun hauetan beste kokka bat iraganen dudala, haboroxe trebatzez. Nik, erran bezala, ez baitut sinesten badela koblakari onik, salbu eta langile onik. Eta hori dut nik eskasik handiena, diziplina zinez gogor zait. Beti bada zerbait interesgarriago garunarentzako, ez eta garunaren bortxatzea pentsamentukatzera, nahiago dugu telebista ikusi, beste zerbaiti pentsatu, edo “pausatzen nauk”, edo... Beti badugu arrazoi on bat ez lanean hasteko, hori zait gaitzena. Gero hasten delarik maite dut, baina hartakotz bertso eskola beharrezkoa zait, nihaur ez bainaiz kapable aritzeko, edo oso guti.

Aipatu duzu, Xermin, kopiatuz ere ikasten eta lantzen dela. Zein dira maite dituzuen bertsolariak, eta zer baloratu duzue entzuketan?

Camblong: Maite ditut bertsolari politiko batzuk. Aitor Bizkarra eta Txaber Altube adibidez, badutelako gaitasun integral bat aritzeko bertsoan, aritzen ahal dira gauza sakonetaz, baina onak dira erantzuteko, baita edozein gairen inguruko ofizioetan aritzeko ere. Eta maite ditut umoretik ari diren bertsolariak ere: Aitor Sarriegi, Iker Zubeldia eta horrelakoak. Sinpletasun batetik grazia dutelako. Unai Iturriagaren absurdoa izateko manera hori ere maite dut. Eta nola ez, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta gisa horretakoak.

Larrory: Hurbilagokoak nik. Izigarriki maite dut Ramuntxo Christy, haren umorea. Xilaba bereziki maite dut. Ez nintzelarik koblaka ari, Xilabarekin nuen sustut harremana bertsoarekin. Ez nintzen sekulan sartzen *bertsoa.eus*-era. *Punttuka* [Xan Alkaten Euskal Irratie-tako emankizuna] behatzen nuen, eta gero Xilaba. Orduan, nik Xilabako bertsolariak maite ditut, prefosta. Eta Hego Euskal Herrikoetan, ez dakit zergatik, nik Nafarroakoak anitz maite ditu: Joanes Ilarregi, Eki Mateorena, Ekhiñe Zapiain... Gazte horiek izigarri maite ditut. Gipuzkoakoak eta Bizkaiaikoak ez ditut hainbeste ikusi. Irati Alkantarilla etorri zen Ekhiñe Zapiainekin, eta maite nuen haren ausartzeko manera hori, igortzen du, maite dut estilo hori.

Camblong: Nik ere Xilabakoak maite ditut!

Hasiera batean distantziatik bizi izan baituzue, nola ikusten duzue bertso mundua?

Larrory: Ni sobera fresko naiz, mundu honetara heldu berri. Duela bizpahiru urte baizik ez dut jarraitzen *bertsoa.eus*, ez dut sentitzen aski gibelasun badudanik zerbait berezirik errateko. Fase horretan naiz, badakizu, ezkondu berri zarelarik bezala, oro maite duzu. Gero, bost urteren buruan edo zazpi urteren buruan heldu da espiritu kritiko bat [barre egin du]. Behinik behin ez dut aski gibelasunik, oro ontsa atzematen dut. Baina aitortu behar dut bereziki maite ditudala txapelketak. Bertso apairuak ere bai, baina ni txapelketazale naiz, izigarri maite dut kontzeptua.

Kontzeptua zer zentzutan, lehia badelako?

Larrory: Lehia eta eztabaidatzea, “bo, zentako hori ez da iragan”, eta horrela. Bai beharbada amiñi bat kirol espiritu horretatik da, alta ez dut sekulan kirolik egin, baina maite dut hala ere lehia hori.

Camblong: Nik, zentzu horretan, alderantziz. Bertso afariak dira ene ustez plazarik onena. Libertimenduaren gisako plazarik ere maite ditut.

Lagunarte giroan bizi duzue bertsoa zuen inguruan?

Larrory: Nik Zuberoan kasik batere ez. Ene lagun anitz ez dira hain euskaldun, orduan, ez dut batere lagunaren artean koblak aritzeko paradarik, edo oso guti.

Camblong: Nik alderantziz. Ainhoa Sarasuarekin hasi nintzen, eta beti ukan ditut lagunak bertsoan ari zirenak. Gainera ni baino maila hobere batekin, beraz, beti izan da parada haiekin aritzeko.

“ ”

Beti enbeia nuen, baina ez nuen atzematen jenderik enekin hasteko

Beñat Larrory

Eta Ipar Euskal Herriko, edo zehazkiago, adibidez, Zuberoako bertsolaritzari buruz, gogoetarik baduzue?

Larrory: Hasi gara gure bertso eskolatik hitzordu zombaiten antolatzen. Nik txapelketa bat proposatu nuen, bistan da, maite baitut txapelketa, baina ez gara aski. Orduan, amiñi bat absurdoa zen proposamen bezala. Azkenean, sortu dugu Lau Sasuak [bertso-emanaldia] eta kurritu gara herriz herri. Lehena izigarri ontsa, Larrañen, 100 pertsona bildu ziren, eskolarekin egin baikinuen. Zuberoan nahi bada jendea ekarrarazi kobletara, beste zerbaitekin lotu behar da. Hor Larrañeko eskola zen, beraz, aita eta amak oro jin dira, bi sosen biltzeko parada zen ere bai. Egin dugu besterik non hamar bat jende bazen. Bagara bertso eskola bat, eta badira gazte zombait heldu direnak gibeletik. Baina ez da beste bertso eskolarik, nik mentsa senditu nuen, eskala goregi zela. Ments da enetako hein

apalago bateko eskola bat, hasi edo entseatu nahi dutenentzako. Aski dut nik egitea, aski dut antolatzea eta egitea. Baina ez naiz oraino hasi horretan. Baina zergatik ez, izaten ahal da proiektu bat ondoko urtetan.

Badu bertsoak halako erakargarritasunik gazteen artean?

Camblong: Erranen nuke badela halako galde bat Iparraldean gazteen artean bertso gehiago entzuteko. Eta bertsoan aritzeko gogo ere bai. Gero eta gehiago ikusten ahal dira adinez pixka bat aitzinatua direnak bertsoan hasten. Gu, adibidez, kasu hori gara, baina lehenago izan dira Bittor Tikoipe, Pettan Prebende, Baigurako bertso eskola... Horrek gogo eman dezake, badute beste bertsoak bat, ez dena beharbada hain kontzientziala. Herrikoia den zerbaite. Ni erakarri nau zentzu batean, eta pentsarazi dit ni ere has nintekeela modu horretan bertsoan. Ikusten da badela beste zerbaite aitzinean ezarria, nahiz eta baden beti teknikoki zuzen ari direnak kopiaitzeko tendentzia bat.

“ ”

Gero eta gehiago ikusten dira adinez aitzinatua direnak bertsoan hasten; gu, adibidez

Xermin Camblong

Hala ere, Xilaban parte hartzen duten hainbat bertsolarirengan erranen zenukete badela beste estilo bat, agian Gipuzkoako txapelketa batean ikus ezin daitekeena?

Larrory: Hartakotz dut maite nik Xilaba. Hasteko, anitzez hobeki ulertzen ditut Xilabako koblakariak. Noiztenka erreferentzia zombait ments ditut behatzen ditudalarik Hegoaldekoak, eta ments ditut espainol hitzak, guk sartzen ditugun bezala. Eta hemengoek, txapelketa egiten dutelarik ez zait iduri hain txapelketako diren, nahiz eta amiñi bat doitzen diren, ez dira doitzen besteen maneran. Zeremonialagoa atzematen dut besteen txapelketa gurea baino. Nahiz eta txapelketa aitzinatzen den bezala, gero eta zeremonialago den. Lehen itzulietan iduritzen zait txapelketa eta bertso apairuen arteko zerbaitean gurea oraino.

Irudikatzen duzue zuen burua, Xilaba eta gero, plazetan? Non kantatu nahiko zenukete, eta zein formatutan?

Larrory: Lehen itzulian kanpoan banaiz ez dut galto anitzik ukanen. Jada Zuberoan ez da hitzordu handirik koblakarietzat. Badira bestak, Tulalaika, ikastolen bestak eta horrelako bizpahiru besta urtean, baina ez dugu ukanen hamar parada kantatzeko, salbu guhaurk sortzen baditugu. Finalera heltzen ez banaiz, ez dut uste ukanen dudala parada anitz bertsoan aritzeko salbu bertso eskolan. Finalera heltzen banaiz, ni ahal dudalarik joanen naiz kantatzera galtoa datekeen lekura. Hegoaldera, zergatik ez. Gainera filmatzen dute aurtengo finala, ETBn iragan behar da.

Camblong: Beraz, finalera heldu behar zara bai ala bai! [Barre egin du] Nik ez dakit sobera. Aipatzen nituen Libertimenduak, eta bertso afariak, eta horrelakoak. Nahiz eta bertso afarietarako maila handia behar den, hara arribatzeko xede bat badut. Eta zinez hobetzen badut, eremu formalagoetan edo politikoagoetan ere kantatu ahal izatea. Baina orain ez naizenez ene teknikaz biziki segur, nahiago dut ez sobera arriskatu horrelakoetan. ●

Zumaia euskaraz bizitzeko da.

